



## **HEZKUNTZA IKUSKARITZAKO URTEROKO PLANA**

### **2002-2003ko IKASTURTEA**

#### **1. SARRERA**

Hezkuntza Sailburuordeak 2002ko urriaren 7ko Ebazpenean onartutako Hezkuntza Ikuskaritzako Hirurteroko Plan Nagusiak EAEko Ikuskaritzaren helburu orokorrak eta funtsezko ildo nagusiak zehazten ditu 2002-2005eko aldirako, ondorengo atalak adieraziz: lehen aipatutako aldian aurrera eraman behar diren funtsezko prozesuak eta azpiprozesuak, euskalduntzearen gaian planteatutako helburuak, ikuskarien prestakuntzari begirako lehentasunak, Ikuskaritzaren barne antolaketa eta Plan Nagusiaren beraren ebaluazioa.

Bestalde, eta Plan Nagusi horrek zehaztutakoaren arabera, urtero plan bat egin behar da, ikasturtean zehar egin beharreko jarduerak edo azpiprozesuak konkretatzeko. Horregatik, Plan Nagusia garatzeko eta berau betetzeko argibideak emateko Hezkuntza Sailburuordeak emandako ahalmenarekin, Ikuskaritza Nagusiaren, Ikuskaritzako Lurralde Burutzen, Arabako Burutzaren Albokoaren eta Bizkai eta Gipuzkoako Burutzen proposamenak entzun ondoren, zehazten da 2002/03ko ikasturte honetarako urteko plana, ondorengo ataletan egituratuko dena:

- Ikasturte honetan aurrera eramateko aukeratutako azpiprozesuak aplikatzearen zehaztapenak.
- Aurreikusitako erakunde-prestakuntza.
- Euskalduntzea.
- Antolaketa-alderdiak.
- Urteko Planaren Ebaluazioa.
- Zerbitzu-arrazoiengatikako ordainsariak.

#### **2. AZPIPROZESUAK APLIKATZEAREN ZEHAZTAPENA**

Gaineratutako Eranskinean garatzen dira ikasturte honetan aurrera eramango diren Plan Nagusiaren azpiprozesuak edo jarduerak, nahiz eta posible izan beste jarduera batzuk egitea horrela erabakiz gero Hezkuntza Administrazioaren arduradunek. Aipatutako Eranskinean ondorengo atalak zehazten dira:

- Ikuskaritzak egin beharreko azpiprozesuaren edo jardueraren izena.
- Egiteko aurreikusten den aldia.
- Azpiprozesuaren emaitza: txosten mota eta noiz eman den.
- Azpiprozesuaren aplikazio-eremua: jarduerak egiten diren ikastetxe edo erakundeak.
- Azpiprozesua planifikatzea eta programatzea bere gain hartzen dituen taldea edo arduraduna.
- Ikastetxeetan jarduera hori egin behar duten ikuskariak eta beren jarduera-eremua: zonaldea, Lurraldea edo Erkidegoa.

### **3. AURREIKUSITAKO ERAKUNDE-PRESTAKUNTZA**

Plan Nagusian jarritako lehentasunak kontuan hartuta, jarraian zehazten den erakunde-prestakuntza eraman nahi da aurrera 2002-03ko ikasturterako:

- Kalitate- eta etengabeko hobekuntza-programetako prestakuntza:
  - EFQM:
    - Oinarrizko prestakuntza-ikastaroa ereduan, ikastetxe bat ebaluatzeko ariketa praktikoarekin. (Ikuskaritza Nagusiak antolatutakoa)
    - Euskalit-eko ebaluatzaile-taldera sartzeko prestakuntza-ikastaroa. Ikastaro horretara sartzeko, Euskalit-ek homologatutako EFQMko oinarrizko prestakuntza-ikastaroren batean parte hartu behar izan da. Horregatik, aurreko ikasturteetan EFQMko prestakuntza-ikastaroren bat egin duten ikuskariek edo ikasturte honetarako aurreikusitakoa egiten dutenek hartu ahal izango dute bakarrik ikastaro honetan parte.
  - ISO:
    - ISO 9001:2000ri eta Kalitate-Sistemen Auditoretzei buruzko ikastaroa.
- Lege- eta administrazio-alderdietan sakontzea:
  - Ikasleen zigor-espedienteak.
  - Irakasleeren zigor-espedienteak.
  - Eskola- eta administrazio-agiriak.
- Informatikako ikastaro espezializatuak: Access,...
- Metodologiako, antolaketa- eta ebaluazio-alderdietan sakontzea.

Ikuskari Nagusiak erabakiko du nortzuek hartuko duten ikastaro horietan parte, zerbitzuaren beharrak kontuan hartuta.

Halaber, informazio-bilerak egin nahi dira, Ikuskaritza Nagusiak garrantzitsutzat jotzen dituen gaiei buruzkoak: Haur Hezkuntza, Kalitate Legea, Hezkuntza Saileko proiektu berriak, Ikuskaritzarekin zerikusi zuzena duten gaiak, etab.

### **4. EUSKALDUNTZEA**

Ikasturte honetan, ondorengoak dira IRALE programaren barruan euskarako ikastaroetara joateko Hezkuntza Sailak baimendutako liberazioak:

- Araba:
  - Ikuskari 1 R ikastaro batera joateko, hiru hilabeterako.
  - 2 ikuskari 2 orduko liberazioarekin arratsaldero, ikasturte osoan
- Bizkaia:
  - Ikuskari 1 R ikastaro batera joateko, hiru hilabeterako.
  - 7 ikuskari 2 orduko liberazioarekin arratsaldero, ikasturte osoan.
- Gipuzkoa:
  - Ikuskari 1 2 orduko liberazioarekin arratsaldero, ikasturte osoan.

Euskaltzaindiaren arau berriei buruzko prestakuntza ere eman nahi da.

## **5. ANTOLAKETA-ALDERDIAK**

### **5.1. IKUSKARITZAREN BISITAK**

Ikuskariak bere erreferentzia-ikastetxeetan aurrera eraman behar ditu urteko plan honen azpiprozesu gehienak. Horiekin guztiekin, normalean egiten diren beste kontrol- edo aholkularitza-jarduerekin batera, ikuskariak sakonki ezagutu behar du ikastetxe bakoitzaren errealitatea, eta haren txosten eta proposamenen bidez ikastetxeen jarduera akademiko hobetzen lagundu behar du.

Garrantzitsuagoa da bisiten kalitatea zaintzea, ikastetxea askotan bisitatzea baino. Bisita horiek planifikatu eta programatu behar dira, ikastetxearen jarduera ahalik eta gutxien eragotzi behar dutela kontuan hartuta. Horretarako, bisita bakoitzean jarduera batzuk egin ahal izatea komeni da.

Bestalde, zenbait atal kontrolatu behar direnean, hots, talde desberdinetako ikasle kopurua, ikastetxe publikoetako irakasleen egutegia eta lanaldia, irakasleen ordutegi pertsonala, ikasleen ordutegia, etab, kontrola ez da agiriak: EED, egutegiaren proposamena, etab, aztertzea mugatu behar, baizik eta unean-unekeo bisitak ere egin behar dira, aldeztu aurretik lortutako informazioa berresteko ala ez.

Gauzak horrela, bisita guztiek, kontrolatzeko asmoz lehen aipatutako unean-unekeo eta planeko beste azpiprozesu batzuetan gehiago zentratzen direnek, erreferentzia esanguratsua izan behar dute ikastetxeen bizitzan, hauek eraginkortasun handiagoz funtzionatzen laguntzeko eta Ikuskaritzak ikastetxeetan gertatzen den guztia zehatz eta behar bezala ezagutzeko, bai Hezkuntza-Administrazioaren arduradunei jakinarazteko, bai behar diren txostenak eta erreferentziako ikastetxeei buruzko ikasturtearen bukaerako azken txostena egiteko.

2002-2003ko ikasturterako zonalde guztiek Ikuskaritzako bisiten erregistro bat izatea lortu nahi da. Bisita bakoitzaren laburpena ondorengo atalak izango dituen aipamen batean jasoko da:

- Identifikazio-datuak: ikastetxea, data, bisita egin duen ikuskaria, etab.
- Bisitaren laburpen txikia, ikuskariaren aldetik:
  - Proposatutako helburuak (Urteko Planari begirakoak edo beste batzuk)
  - Egindako jarduerak (izandako elkarrizketa eta bilerak, bisitatutako gelak, etab...)
  - Antzemandako problemarik handienak (egokitzat jotzen bada).
  - Egindako proposamenak (egokitzat jotzen bada).
  - Gaiaren garrantzia dela eta, geroago txosten zehatzago bat egin nahi baldin bada, aipamenean jasota geratuko da.

### **5.2. LAN-TALDE ETA BATZORDEAK**

2002ko ekainaren 18ko Aginduak, Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa eta funtzionamendua zehazten dituenak, aurreikusten dituen Lurraldearteko eta Lurralde mailako Koordinazio-Batzordeez gain, ondorengo lan-talde eta batzordeek funtzionatuko dute ikasturte honetan:

- **Kalitate Batzordea**

Ondorengo ikuskariak osatuko dute aipatutako aginduak 11. artikuluan zehazten duen batzorde hori: José Antonio Romero (beraren koordinatzailea), Elías Salaberría, Jesús M<sup>a</sup> Kortazar, José I. Molinuevo, Mercedes Hidalgo eta Joseba Vicario.

Ikuskaritzaren jarduerak etengabe hobetzeko helburua lortze aldera, Kalitate Batzorde horrek ondorengo ardurak izango ditu:

- Ikuskaritzako kalitate-sistema kudeatu eta koordinatzea.
- Ikuskaritza Plana onartzeko prozesuan sortutako dokumentazioa onartu, kontrolatu eta antolatzea. Onartze hori ez da edukiari buruzkoa izango, ezarritako kudeaketa-sistemari lotzeko ikuspuntu formalari buruzkoa baizik.
- Talde desberdinei aholkularitza ematea, beren jarduerak gara ditzaten.
- Taldeetako partaideen prestakuntza-beharrei erantzuna ematea.
- Helburuak berrikustea eta hobekuntza-proposamenak onartzea, Ikuskaritzaren kalitateari begira.
- Ikuskari Nagusiari helaraztea sistema aplikatzeko orduan proposatzen diren aldaketa eta jarduerak, aztertu eta onartzeko, nahi izanez gero.

- **Ikuskaritzaren bisitetarako eta administrazioaren barne antolaketarako hobekuntza-taldea**

Ikuskariak beren erreferentziako ikastetxeetan egingo dituzten ohiko jarduerak agirien, arauen eta informatikaren euskarria ere beharko dute, ikuskarien lana errazteko eta hasierako eta bukaerako bisitak estandarizatzeko. Izan ere, Hirurteroko Plan Nagusian xedatutakoaren arabera planifikatu, prozeduren bidez egituratu eta koordinatuko dira hasierako eta bukaerako bisita horiek Ikuskaritza osorako.

Bestalde, Ikuskaritzaren antolatze-egitura aldatu denez, une egokia da Lurralde eta Zonalde bakoitzean dagoen administrazio-antolaketa hobetzeko. Ikuskarien jardueraplana, agirien kudeaketa, administrazio-lanen artxiboak...etab. izango dira aztergai, eta bisiten plangintzaz arduratzen den hobekuntza-taldeak egingo ditu hobetzeko proposamenak. Izan ere, ondorengo ikuskariek osatuko dute hobekuntza-talde hori: Jesús Herce (horren arduraduna), José Manuel Pineda, Jesús M<sup>a</sup> Pérez, José Andrés Sánchez eta Juan Antonio Altozano.

- **Azpiprozesuetarako taldeak**

Urteko Planeko azpiprozesuak planifikatzeaz arduratzen diren taldeek, berorien partaideak gaineratutako eranskinean aipatzen dira, ondorengo ardurak izango dituzte:

- Esleitutako azpiprozesua diseinatu eta planifikatzea.
- Azpiprozesua garatzeko behar diren eragiketa-argibideak eta agiriak zabaltzea.
- Ezarrita dauden adierazleak kontuan hartuta azpiprozesua bera egitea kontrolatzea eta egon daitezkeen hobekuntza-jarduerak proposatzea.

Plan honetan ezartzen diren azpiprozesuen taldeen koordinazioa eta gainbegiratzea zenbait maila ezberdinetan egituratzen da honako ardura hauekin bakoitzarentzat:

- **Taldeen arduradunak**
  - Taldeekin egin behar diren bilerak planifikatzea eta programatzea eta horri buruz berri ematea Ikuskaritza Nagusiari.
  - Azpiprozesua egiteko aurreikusten den plana proposatzea Ikuskaritza Nagusiari berak onartu ahal izateko.
  - Azpiprozesuaren aplikazioan eta kontrolean lan taldeak egin behar duen lana koordinatzea.
  - Taldekideekin batera azpiprozesuari dagokion txostena egin.

- **Lurralde eta Zonalde Burutzak:**
  - Zonaldean eta Lurraldean garatzen ari diren azpiprozesuak gainbegiratzea.
  - Zonaldean edo Lurraldean garatzen ari den azpiprozesu batek arazoak sortzen baditu Ikuskari Nagusiari adieraztea.
- **Ikuskaritza Nagusia:**
  - Ikasturtean zehar egingo diren azpiprozesu edo ekintzak zehaztea eta baita ere talde bakoitzeko partaideak eta arduradunak.
  - Taldeek egingo dituzten bileren egutegia eta proposatzen duten plangintzari buruz berri eman Lurralde Burutzei.
  - Talde bakoitzeko arduradunek proposatzen duten plana onartu edo aldaketak proposatu.
  - EAEn egiten ari diren azpiprozesu guztien garapena gainbegiratu.

## **6. URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA**

Ikuskaritzako Lurralde Burutzak, Bizkaia eta Gipuzkoako Zonalde Burutzen eta Arabako Lurralde Burutzaren Ondokoaren laguntzarekin, arduratuko dira Lurralde mailako jardura-planen jarraipen eta ebaluazioaz. Horregatik, ikasturtearen bukaeran, txosten bat egingo dute, planaren helburuak zein mailatan bete diren, balorazioa eta egokitzeak jotzen dituzten hobekuntza-proposamenak jasoko dituen.

Geroago, Ikuskaritza Nagusiak Urteko Azken Memoria egingo du, Lurralde Burutzek egindako balorazio eta hobekuntza-proposamenak jasoz.

## **7. ZERBITZU-ARRAZOIENGATIKAKO ORDAINSARIAK**

Ikuskarien lanak ikastetxeetara eta beste erakunde batzuetara sarritan joatea eskatzen du, eta horren gastuak ordaintzen dira, abenduaren 19ko 267/2000 Dekretuak (2000-12-30eko EHAA), aldatzen duen otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak (1993-02-26ko EHAA), zerbitzu-arrazoiengatikako ordainsariei buruzkoak, xedatutakoaren arabera. Dena den, gastuak razionalizatzen saiatuko da, mantenu-ordaina bakarrik kasu justifikatuetan erabiliz.

Justifikatutako gastuak kobratzeko, ikuskari bakoitzak bidai gastuen kitapena osatuko du, gastu horiek azaltzeko eranskinarekin batera, horretarako dagoen formatuan. Egindako gastuak ordaintzeko, mailaz goragokoak (lehen aipatutako 16/1993 Dekretuaren 15. artikulua), Ikuskaritzako Lurralde Burutzak eta Zonalde Burutzak kasu honetan, gastuen kitapena ikuskatu eta izenpetuko dute.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko urriaren 30ean

Ikuskari Nagusia

Izpta: Juan M<sup>a</sup> Aztiria

## 2002/03ko URTEKO PLANAREN ERANSKINA

### 2002/03ko IKUSKARITZA-PLANEKO AZPIPROZESUAK APLIKATZEAREN ZEHAZTASUNAK

#### PR 0201. Ikastetxeen ebaluazioa eta auditoria.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesuaren taldea		Azpiprozesua egitea	Ikuskarien jardueraren eremua	<u>Oharrak</u>
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0201 01	LHko ikastetxe integralen sarea osatzen duten Lanbide Heziketako ikastetxeen ebaluazioa	2. eta 3. hiruhil.	---	---	---	JA Romero	R Juan JM Oñate X Egizabal	Ebaluatzaile-klubaren ikuskariak	EAE	Ikasturte honetan egingo dena formakuntza eta diseinua izango da
0201 02	Hezkuntza Sailburuordetzak zehaztutako ikastetxe publikoetan ezarriko den kalitatea kudeatzeko sistemaren (KKS) ebaluazioa.	2. eta 3. hiruhil.	Ikast. txostena	06/30	KKS (SGC) duten ikastetxe guztiak	J Herce J Granja	C Mediavilla M Hernández M Zarrakonandia	Erreferentzia-ikuskariak + ebaluatzaile klubaren ikuskariak	EAE	
0201 03	GUNEKA antolaketa- eta kudeaketa-ereduaren ebaluazioa.	3. hiruhil.	Ikast. txostena	06/30	GUNEKA ereduak duten ikastetxe guztiak	JA Romero	K Arriaga K Mujika A Arenaza	LHn esperientzia duten ikuskariak	EAE	
0201 04	Kualifikazioen sistemari lotutako prestakuntzaren auditoria.	Urria-maiatza	Ikast. txostena EAEko txostena	06/30	Lagina	JA Romero	P Bilbatua J Vicario JM Kortazar E Salaberria	Auditorietan esperientzia duten ikuskariak	EAE	
0201 05	Ikastetxeetako emaitzen azterketa eta balorazioa.	1. hiruhil.	Ikast. txostena	12/20	DBH ematen duten ikastetxe guztiak	J Granja	J Grisaleña D Aguado I Negrodo	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	

### PR 0202. Irakasleen ebaluazioa.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaiza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesuaren taldea		Azpiprozesua egitea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
<b>Irakasle- eta zuzendaritza-funtzioen ebaluazioa:</b>										
0202 01	Zuzendaritzan aritzeko kreditazioa.	3. hiruhil.	Banakako txostena	05/30	Eskaera guztiak	JM Aztiria	Lurralde-buruak	Erreferentzia-ikuskarriak	Zonaldea	
0202 04	Berritzeguneei egingo zaien ebaluazioan parte hartzea	Ikasturte osoan	EAEko txostena	06/30	Berritzegune guztiak	JM Aztiria	Lurralde-buruak	Lurralde-buruak	Lurraldea	

### PR 0203. Hezkuntza Sailak onartutako programen eta proiektuen jarraipen, kontrol eta ebaluazioa

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaiza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesuaren taldea		Azpiprozesua egitea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
<b>Hezkuntza Berriztapenerako proiektuak:</b>										
0203 03	Eskatutako proiektuen balorazioa.	Deialdiaren arabera. Uztaila eta iraila.	Proiekt. txostena	Deialdiaren arabera	Eskaera guztiak	MC Ferreres	L Rojo M Hidalgo C Echeverria	Erreferentzia-ikuskarriak	Zonaldea	
0203 04	Onartutako proiektuen garapen eta aplikazioa ebaluatzea.	2. hiruhil.	Proiekt. txostena Lurralde txostena EAEko txostena	05/30	Proiektu guztiak	MC Ferreres	L Rojo M Hidalgo C Echeverria	Erreferentzia-ikuskarriak	Zonaldea	

**PR 0203. Hezkuntza Sailak onartutako programen eta proiektuen jarraipen, kontrol eta ebaluazioa**

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaiza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesuaren taldea		Azpiprozesua egitea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0203 07	Ikastetxeetako prestakuntza-proiektuen jarraipen eta kontrola.	2. hiruhil.	Ikast. txostena	06/15	Lagina	MC Ferreres	L Rojo M Hidalgo C Echeverria	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
<b>Curriculum Desberdinak Eratzeko Programak:</b>										
0203 09	DBHn curriculum desberdinak ezartzeko egin diren eskaerak baloratzea.	Ekainia-uztaila	Ikast. txostena	07/07	Eskaera guztiak	J Granja	PL Rodriguez L Barrutia D Mazuela	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0203 10	Behin-behingo onartutako curriculum desberdinetako taldeen kontrola.	Urria	Ikast. txostena	10/31	Baimendutako talde guztiak.	J Granja	PL Rodriguez L Barrutia D Mazuela	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0203 11	Curriculum desberdinak eratzeko programa nola aplikatzen den jarraitu eta kontrolatzea.	Martxo	Proiekt. txostena Lurralde txostena EAEko txostena	05/30	Lagina	J Granja	PL Rodriguez L Barrutia D Mazuela	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
<b>Hezkuntzan Parte-Hartze Espezifikoko Programak:</b>										
0203 12	DBHn hezkuntzan parte-hartze espezifikoko programak izateko egin diren eskaerak baloratzea.	Ekainia-uztaila	Ikast. txostena	07/07	Eskaera guztiak	J Granja	PL Rodriguez L Barrutia D Mazuela	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
<b>Eskolatzeko Programa Osagarriak:</b>										
0203 14	DBHn eskolatzeko programa osagarriak izateko egin diren eskaerak baloratzea.	Ikasturte osoan	Banakako txostena	Eskaer. arabera	Eskaera guztiak	J Granja	Lurralde-buruak	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	



**PR 0203. Hezkuntza Sailak onartutako programen eta proiektuen jarraipen, kontrol eta ebaluazioa.**

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesuaren taldea		Azpiprozesua egitea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0203 18	Etorkinen eta gizarte maila ahuleko ikasleen eskolatzea jarraitu eta kontrolatzea.	1. hiruhil.	Ikas. txostena Lurralde txostena	12/20	Eragindako ikastetxe guztiak	I Tazón	R Fernández P. Valiente	Erreferentzia-ikuskarriak	Zonaldea	
<b>Haur eskolak:</b>										
0203 19	Udaletako haur eskolen proiektuen balorazioa.	Urria	Proiekt. txostena	10/31	Aurkeztutako proiektu guztiak	I Cereceda	---	Ikuskari arduraduna	EAE	
0203 20	Onartutako proiektuen jarraipena.	Ikasturte osoan	Ikast. txostena	06/30	Baimendutako proiektu guztiak.	I Cereceda	J Pérez A Unamuno	Erreferentzia-ikuskarriak	EAE	

**PR 0204. Arau kontrola.**

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesuaren taldea		Azpiprozesua egitea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
<b>Ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua:</b>										
0204 01	Lehen Hezkuntzako EEDren arau kontrola	1. hiruhil.	Ikas. txostena Zonaldeko txostena Lurralde txostena EAEko txostena	11/15 11/30 12/10 12/20	Ikastetxe guztiak	J Herce	J Pérez P Ibarrodo JA Ayucar	Erreferentzia-ikuskarriak	Zonaldea	

**PR 0204. Arau kontrola.**

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesuaren taldea		Azpiprozesua egitea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0204 02	Bigarren Hezkuntzako EEDren arau kontrola.	1. hiruhil.	Ikas. txostena Zonaldeko txostena Lurralde txostena EAEko txostena	11/15 11/30 12/10 12/20	Ikastetxe guztiak	J Granja	L Rojo P Bilbatua JA Fernández	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0204 03	Kontserbatorioetako eta Musika emateko baimena duten ikastetxeetako EEDren arau kontrola.	1. hiruhil.	Ikast. txostena	12/10	Ikastetxe guztiak	J Granja	Jl Molinuevo I Larrinaga I Erice	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0204 05	Ikastetxeetako talde eta ikasle kopurua kontrolatzea. Egoerari buruzko txostena.	1. hiruhil.	Ikast. txostena	Eskae-raren arabera	Ikastetx./eskaeraren arabera	---	---	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0204 06	Ikastetxeetako eskola- eta administrazio-agiriak kontrolatu eta aztertzea.	2. hiruhil.	Lurralde txostena	03/31	Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxeen lagina	R Fernández	M Bonet JM Pineda	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0204 07	Irakasleen huts egiteen kontrola.	Ikasturte osoan	Lurralde txostena	07/18	Ikastetxe publiko guztiak	JA Altozano	JP Risco	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0204 08	Kide bakarreko eta anitzeko organoak aukeratzeko prozesuaren jarraipen eta kontrola.	1. hiruhil.	Lurralde txostena	12/20	Ikastetxe guztiak	Lurralde-buruak	---	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	

**PR 0204. Arau kontrola.**

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaiza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesuaren taldea		Azpiprozesua egitea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0204 09	Ikastetxeetako eskola-egutegien jarraipen eta kontrola.	Ekaina	Ikast. txostena	06/30	Ikastetxe guztiak	Lurralde-buruak	---	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0204 10	Ikasturtearen hasierako gorabeherak jarraitzea.	Iraila-urria	Ikast. txostena	09/30	Ikastetxe guztiak	J Herce	JA Altozano JM Pineda	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0204 11	Itunpeko gelen kontrola.	1. hiruhil.	Ikast. txostena	Eskararen arabera	Ikastetx./eskaeraren arabera	Lurralde-buruak	---	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0204 14	Eskolaketa-liburuak eskatu, erregistratu eta banatzea.	1. hiruhil.	Zonalde txostena Lurralde txostena	12/20	Ikastetxe guztiak	Lurralde-buruak	---	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
<b>Curriculum:</b>										
0204 15	Helduen Hezkuntzan curriculum benetan ezarri den jarraitu eta kontrolatzea.	1. eta 2. hiruhil.	Ikas. txostena Zonaldeko txostena Lurralde txostena EAEko txostena	12/28 03/07 03/21 06/30	HHIko ikastetxe guztiak	J Herce	P Trancón D Rabanal M Saenz de Urturi	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0204 16	UOHEIn curriculum benetan ezarri den jarraitu eta kontrolatzea.	1. eta 2. hiruhil.	Ikas. txostena EAEko txostena	03/21 06/30	UOHEIko ikastetxe guztiak	J Herce	P Trancón D Rabanal M Saenz de Urturi	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	

**PR 0204. Arau kontrola.**

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesuaren taldea		Azpiprozesua egitea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0204 17	Programazio didaktikoak ikuskatzea.	Program. Laburdura. aldia 1. Hiruhil. Mintegi bisitaren aldia 2. hiruhil.	Ikast. txostena  Ikast. txostena EAEko txostena	12/20  03/30	DBH eta Batx. dituzten ikastetxe guztiak  Lagina	J Granja	M Narbona PJ Romero	Erreferentzia-ikuskeriak  ikuskeria espezialistak	Zonaldea  Lurraldea	
0204 19	Curriculumaren egokitzapen esanguratsuen jarraipen eta kontrola.	Abendua	Banakako txostena	12/20	Proposamen guztiak	J López de Muniain	A Gonzalo A Abrisqueta	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0204 20	Helduen Hezkuntzako berariazko ikastetxe publikoetako arautu gabeko prestakuntza-programen kontrola.	Onartze-aldia: iraila-urria Jarraitze- eta ebaluatze-aldia: ekaina	Ikas. Txostena  EAEko txostena	10/10  06/30	Programa guztiak	J Herce	P Trancón D Rabanal M Saenz de Urturi	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
<b>Irakasleak eta ikasleak:</b>										
0204 21	Ikasleen eskubide eta betebeharreri buruzko araudia nola betetzen den kontrolatzea.	Ikasturte osoan	Aldian-aldiko txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0204 22	Ikasleen zigor-espeditenteen kontrola.	Ikasturte osoan	Aldian-aldiko txostena	---	Eskaeraren arabera	JA Altozano	JL Angulo JM Pineda	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0204 23	Indarreko legeria betetzen den kontrolatzea, ikasleen ebaluazioari, igarotzeari, onarpenari begira.	Ikasturte osoan	Aldian-aldiko txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	

**PR 0204. Arau kontrola.**

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesuaren taldea		Azpiprozesua egitea	Ikuskariei jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0204 24	Maila guztietan gertatzen diren euskara-salbuespenen kontrola.	1. hiruhil.	Banakako txostena	12/01	Eskaera guztiak	A Arsuaga	JL Angulo M Zarraonaindia	Ikuskari arduradunak	Lurraldea	
0204 25	DBHko Graduatuen proposamenen kontrola	Ekainia-uztaila	---	---	DBH duten ikastetxe guztiak	Lurraldeburuak	Zonaldeburuak	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0204 26	Irakasleen titulazioen kontrola.	Ikasurte osoan	Banakako txostena	Eskararen arabera	Eskaera guztiak	Lurraldeburuak	---	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0204 27	Ikasleen hutsegiteen kontrola	Ikasurte osoan	Lurralde txostena EAEko txostena		LH eta DBH dituzten ikastetxe guztiak	I Cereceda	J Grisaleña L. de Juan	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	

**PR 0205. Ikasleen emaitzen azterketa eta balorazioa.**

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesuaren taldea		Azpiprozesua egitea	Ikuskariei jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0205 01	Derrigorrezko irakaskuntzako: Lehen Hezkuntza eta DBH, ikasleen emaitzen trataera informatikoa, azterketa eta balorazioa.	Ekainia-uztaila	Inform. fitxeroa EAEko txostena	07/10 07/20	Ikastetxe guztiak	J Herce J Granja	JA Sánchez + zonalde arduradunak J Grisaleña N Arroita P Peñacoba	Erreferentzia-ikuskeriak ---	Zonaldea	

**PR 0205. Ikasleen emaitzen azterketa eta balorazioa.**

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesuaren taldea		Azpiprozesua egitea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0205 02	Derrigorrezko irakaskuntzaren ondoko: Batxilergoa eta heziketa-zikloak, ikasleen emaitzen trataera informatikoa, azterketa eta balorazioa.	Ekaina-uztaila Iraila	Inform. fitxeroa EAEko txostena	07/20 09/30	Ikastetxe guztiak	J Granja JA Romero	JA Sánchez + zonalde-arduradunak K Arriaga JA González JM Guillén	Erreferentzia-ikuskariak ---	Zonaldea	
0205 03	Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua lortzeko proba libreetan lortutako emaitzen azterketa eta balorazioa.	Urtarrila eta uztaila	EAEko txostena	01/30 07/20	Epaimahai guztiak	J Granja	---	---	---	
0205 04	Heziketa-zikloetan sartzeko probetan lortutako emaitzen azterketa eta balorazioa.	Maiatza-ekaina	EAEko txostena	07/20	Epaimahai guztiak	JA Romero	JM Kortazar JM Villa	---	---	
0205 05	Unibertsitaterako sarbide-probetan lortutako emaitzen azterketa eta balorazioa.	1. hiruhil.	EAEko txostena	12/20	Epaimahai guztiak	J Granja	A Anasagasti JM Pineda	---	---	

**PR 0206. Ikastetxeei eman beharreko aholkularitza.**

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesuaren taldea		Azpiprozesua egitea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0206 01	OOGko edo Eskola Kontseiluko elkarbizitza-Batzordeari eman beharreko aholkularitza.	Ikasturte osoan	Aldian-aldiko txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	

**PR 0206. Ikastetxeei eman beharreko aholkularitza.**

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaiza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesuaren taldea		Azpiprozesua egitea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0206 02	Erreklamazioei arreta ematea, ikasleak ebaluatzeko prozedurak alde pedagogiko eta administratiboei begira ondo egiteari buruzkoak.	Ikasturte osoan	Aldian-aldiko txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0206 03	Diziplina-zigorak behar bezala tramitatzeari buruzko aholkularitza.	Ikasturte osoan	Aldian-aldiko txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0206 04	Eskolaketa-liburuak, ebaluazio-aktak eta ikasketa-espedienteak bete eta zaintzeari buruzko aholkularitza.	Ikasturte osoan	Aldian-aldiko txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0206 05	Ikastetxearen curriculum-proiektua, urteko plana eta memoria egiteari buruzko aholkularitza.	Ikasturte osoan	Aldian-aldiko txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0206 06	Kudeaketaren gaiak direla-eta zuzendaritza-taldeein eman beharreko aholkularitza.	Ikasturte osoan	Aldian-aldiko txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0206 07	Europako hezkuntza-programetan parte har dezaten ikastetxeein eman beharreko aholkularitza.	Ikasturte osoan	Aldian-aldiko txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	

**PR 0207. Administrazioarekiko lankidetzeta-jarduerak.**

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaiza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesuaren taldea		Azpiprozesua egitea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0207 01	Hezkuntza Saileko arduradunek: Sailburuak, Sailburuordeek, Zuzendariak eta Lurralde Ordezkariek, eskatutako txostenak.	Ikasturte osoan	Banakako txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Ikuskaritza Nagusia + Lurralde Buruak + Ikuskariak	EAE	
0207 02	Euskadiko Eskola Kontseiluak eskatutako txostenak	Ikasturte osoan	Banakako txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Ikuskari Nagusia + Lurralde Buruak	EAE	
0207 03	Arartekoak eskatutako txostenak.	Ikasturte osoan	Banakako txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Ikuskari Nagusia + Lurralde Buruak	EAE	
0207 04	Eusko Legebiltzarrak eskatutako txostenak.	Ikasturte osoan	Banakako txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Ikuskari Nagusia + Lurralde Buruak	EAE	
0207 05	Estatuko Goi-Ikuskaritzak eskatutako txostenak.	Ikasturte osoan	Banakako txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Ikuskari Nagusia + Lurralde Buruak	EAE	
0207 06	Euskaraz dauden argitalpen-proiektuak baimentzeko txostenak.	Ikasturte osoan	Banakako txostena	07/20	Eskaeraren arabera	---	---	PM Legarreta K Mujika	---	
0207 07	Ikastetxe publikoetako irakasleei espedienteak irekitzea.	Ikasturte osoan	Banakako txostena	---	Eskaeraren arabera	---	---	Izendatutako ikuskaria	Lurraldea	



**PR 0207. Administrazioarekiko lankidetzeta-jarduerak.**

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Azpiprozesuaren taldea		Azpiprozesua egitea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0207 08	Ondorengo jardueretarako osatutako batzordeetan parte hartzea: zuzendaritza-karguetarako kreditazioak, titulazioak, zerbitzu-eginkizunak, lehiaketa eta beste deialdi batzuetarako irakasleen merezimenduak baloratzea, berriztapen-proiektuak, Bigarren Hezkuntzako Graduatuak lortzeko proba libreak,...etab.	Deialdiaren arabera	Deialdiaren arabera	---	Deialdiaren arabera	---	---	Izendatutako ikuskariak	EAE	
0207 09	Atzerriar eta gizarte-maila ahuleko ikasleak eskolarazteko dauden Batzordeetan parte hartzea.	Eskaeraren arabera	Eskaeraren arabera		Eskaeraren arabera			Zonalde Buruak eta lurralde Buruak	Zonaldea	
0207 10	Ondorengo epaimahaietan parte hartzea: Bigarren Hezkuntzako Graduaturako proba libreak, heziketa-zikloetan sartzea, Unibertsitaterako sarbide-probak, Batxilergoko aparteko sariak, etab.	Deialdiaren arabera	Deialdiaren arabera	---	Deialdiaren arabera	---	---	Izendatutako ikuskariak	EAE	
0207 11	Oposizio-epaimahaietan parte hartzea.	Ekainazuztaila	---	---	---	---	---	Izendatutako ikuskariak	EAE	
0207 12	Ikastetxe publikoen plangintzan parte hartzea: ikasle-taldeak, plantilak, LZ, etab.	Uztaila	---	---	Eskaeraren arabera	---	---	Izendatutako ikuskariak	Lurraldea	
0207 13	Saileko ebazpenak eta zirkularrak egiten parte hartzea.	Eskaeraren arabera	---	---	Eskaeraren arabera	---	---	Ikuskari Nagusia	EAE	

**PR 0207. Administrazioarekiko lankidetzajarduerak.**

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaita		Aplikazio-eremua	Azpiprozesuaren taldea		Azpiprozesua egitea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data		Arduraduna	Taldea			
0207 14	Unibertsitaterako sarbide-probak koordinatu eta egiteko EHUrekin lankidetzan aritzea.	Ikasturte osoan	---	---	Izendapenaren arabera	---	---	Izendatutako ikuskariak	EAE	
0207 15	Ikastetxe publikoetako lagun bakarreko organoak proposatzea.	Ekaina	Banakako txostena	06/30	Ikastetxe publiko guztiak		---	Erreferentzia-ikuskarriak	Zonaldea	
0207 16	Udalekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea: Emakunde, Adin Txikikoen Fiskaltza, Sarean, Kalitaterako Agentzia, Foru Aldundiak, etab.	Eskaeraren arabera	---	---	Eskaeraren arabera	---	---	Izendatutako ikuskariak	EAE	
<b>Hezkuntza-Sistemaren ebaluazioaren Ebaluazioaren Euskal Institutuarekin lankidetzan aritzea:</b>										
0207 17	Hezkuntza-adierazleen euskal sistema bat finkatzea.	Ikasturte osoan	---	---			---	M Hidalgo	EAE	
0207 18	Hizkuntzek hezkuntza-sisteman duten egoeraren ebaluazio kualitatiboa.	Ikasturte osoan	---	---			---	JM Murgialday	EAE	